3.– Ezaugarri teknikotzat, lehengo homologazio-erabakietan jasotzen diren ezaugarri teknikoak definitzea.

4.– Legeetan finkatzen den bezala, erabaki honen berri emateko eta, hala behar izanez gero, argitaratzeko agintzea.

Erabaki honen aurka, errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango zaio Industri Antolamendu eta Administraziorako sailburuordeari, horren berri jaso eta hilabeteko epearen barruan. Eta hori, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107. atalean eta hurrengoetan xedatzen denaren arabera.

Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Guztiek ezagutu dezaten argitaratzen da hau.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko otsailaren 5a.

Industri, Energi eta Meategien
Administraziorako zuzendaria,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

3.– Definir como características técnicas las indicadas en las primitivas Resoluciones de homologación.

4.– Ordenar la notificación y en su caso publicación, en forma legal, de la presente Resolución.

Contra la presente Resolución se podrá interponer Recurso Ordinario, ante el Ilmo. Sr. Viceconsejero de Ordenación y Administración Industrial, en el plazo de un mes contado desde su notificación, de acuerdo con lo establecido en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 1996.

La Directora de Administración de Industria,
Energía y Minas,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

2141

ERABAKIA, 1996ko martxoaren 4koa, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendariarena, amoniakoa erabiltzen duten eta eraikinen gainaldeetan instalatu ohi diren klimatizaio-instalazioak jartzeko baimenak emateko bete behar diren baldintza teknikoak finkatzen dituena.

Esp. zk.: SEG/0033-96

Airezko kondentsagailuez baliatuz hozketa-jardunak betetzen dituzten instalazioak jartzeko baimenak eskatzen zaizkie gaurregun Sail honi atxikita dauden lurralde organoei. Instatalazio horiek amoniakoa erabiltzen dute hozketagai. Eskabide horietan, instalazioa eraikinen gainaldeetan jartzeko posibilitatea planteiatzen da.

Berogailu, Klimatizazio eta Sanitate-Urberoari buruzko Arautegia onartzen deneko uztailaren 4ko 1618/1980 Errege Dekretuan jasotzen den Osagarrizko Instrukzio Teknikoko 07.0 idazatian (1981eko uztailaren 16ko Agindua), hauxe esaten da: «Hotza edo beroa sortzeko makinak epe luzerako instalatuta dauden lekuak makina-salatzat joko direla» alegia.

Instrukzio horretan ez da finkatzen, hotz-ekipoek, eraikin baten barruko lokal batek osatzen duen makina-sala batean kokatuta egon behar duten ala ez eta segurtasun-baldintza jakin batzuk bete behar dituzten ala ez.

Lehen esan direnen kaltetan gabe, eraikin baten gai-

2141

RESOLUCIÓN de 4 de marzo de 1996, de la Directora de Administración de Industria, Energía y Minas, por la que se establecen los requisitos y condiciones técnicas para la autorización de instalaciones de climatización que utilizan como refrigerante amoniaco y se sitúen en las azoteas de edificios.

N.º Exp.: SEG/0033-96

En la actualidad se está planteando ante los órganos territoriales dependientes de este Departamento solicitudes para la autorización de instalaciones de enfriamiento con condensador por aire, que utilizan como refrigerante el amoniaco. En dichas solicitudes se plantea la posibilidad de que la instalación se efectúe en las azoteas de edificios.

La Instrucción Técnica Complementaria IT.IC.07 (Orden de 16 de julio de 1981) del Real Decreto 1618/1980, de 4 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Calefacción, Climatización y Agua Caliente Sanitaria, establece, en su apartado 07.0, que «tendrá la consideración de sala de máquinas todo local donde se halle instalada permanentemente maquinaria de producción de frío o calor»

En la misma Instrucción no se obliga a que los equipos de frío deban estar situados en una sala de máquinas que venga definida por un local en el interior de un edificio y con determinadas características de seguridad.

Sin perjuicio de lo anterior se debe tener en cuenta y

naldean jarriko den instalazioaren kokapen berezia eta amoniakoa hozgai-elementu gisa erabiltzea kontutan hartu behar dira eta behar den bezala baloratu industri-segurtasunaren ondorioetarako, suteak izateko eta gasak ihes egiteko arriskua baitakar horrek. Arrisku horiek alboratu ahal izateko eta instalazioaren jarduera, erregularra, emankorra eta segurua izatea eta bere erabilkera behar den bezalakoa izan dadila lortzea ziurtatuko duten betebeharrak eta baldintzak finkatu behar dira.

Klimatizazio, Berogailu eta Sanitate-Urberoaren Batzorde Teknikoak, instalazio horietarako baimena eman dadinaren aldeko txosten orokorra eman zuen eta instalazio horiek bete behar dituzten betekizun teknikoak finkatu zituen.

Erabaki honetan jasotzen diren xedapenek, indarrean dauden legeetan eta arauetan ezarritakoak betetze-indarra dute eta Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 21. atalean finkatzen direnetan oinarri hartuz ematen dira. Prozedura horren arabera, administrazio organoek, beren menpeko organoen jardunak gidatuko dituzte, argibideak eta aginduak emanez. Argibide horiek Buletin Ofizialean argitaratuko dira, hartzaileak edo ekar ditzakeen ondorioak direla-eta egokitzat jo dadinean.

Erabaki hau hartzeko Zuzendaritza honek duen eskumena, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen duen urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuan dago zehaztuta.

Klimatizazio, Berogailu eta Sanitate-Urberoaren Batzorde Teknikoaren proposamenez, aipatu diren lege xedapenak ikusi eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen xedapenak aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.– Amoniakoa erabiltzen duten eta eraikinen gainaldeetan jarri ohi diren klimatizazio-instalazioek bete behar dituzten xedapen teknikoak finkatzea.

Bigarrena.– Aurreko puntuan agindu denaren arabera, Sail honetako lurralde ordezkaritzek gailu horiek jartzeko baimenak eman ahal izango dituzte, honako baldintza tekniko hauek betetzen direla formalki kredita dadinaren baldintzapean:

1. Han jarrita dauden instalazioak mantentzeko ardura duten langileak bakarrik sartu ahal izango dira leku horretan. Ezin erabili ahal izango da gainaldea, larrialditarako irtenbidetarako.

2. Horretarako baimena duten langileek bakarrik erabili ahal izango dituzte makinak. Instalazioak, gutxienez 2 metroko altuera izango duen metalezko hesi bat izango du inguruan. Kanporantz zabalduko den (07.2.c) eta sarturtenetarako erabiliko den ate bat (IT.IC. 07 2.b) izango du.

3. Makina eta hesi metalikoaren artean, mantenivalorar suficientemente, a efectos de seguridad industrial, la especial ubicación de la instalación, que se realizará en la azotea del edificio, así como la utilización, como elemento refrigerador, del amoniaco, lo cual implica la existencia de riesgo de incendio y de escape de gas. Para evitar estos riesgos, debe considerarse la necesidad de establecer los requisitos y condiciones que aseguren y garanticen un regular, eficaz y seguro funcionamiento de la instalación, así como su adecuada utilización.

La Comisión Técnica de Climatización, Calefacción y Agua Caliente Sanitaria emitió, con carácter general, un informe de carácter favorable para la autorización de la referida instalación, fijando las prescripciones técnicas que tales instalaciones deberían reunir.

Las disposiciones contenidas en esta resolución, tienen el carácter de disposiciones de ejecución de la legislación y reglamentación en vigor y se dictan al amparo de lo establecido en el artículo 21 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Según dicho procedimiento los órganos administrativos dirigirán las actividades de los órganos jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y órdenes de servicio, debiendo tales instrucciones ser publicadas en el correspondiente Boletín Oficial cuando se estime conveniente por razón de los destinatarios o de los efectos que puedan producirse.

La competencia de esta Dirección para la adopción de la presente Resolución, viene establecida en el Decreto 81/1995, de 31 de enero, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca

A propuesta de la Comisión Técnica de Climatización, Calefacción y Agua Caliente Sanitaria y vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Establecer las prescripciones técnicas a las que se deberán someter las instalaciones de climatización que utilizan como refrigerante amoniaco y se sitúen en las azoteas de edificios.

Segundo.– En función de lo establecido en el punto anterior, las Delegaciones Territoriales de este Departamento podrán autorizar la instalación de los citados aparatos, siempre que se acredite formalmente el cumplimiento de las siguientes prescripciones técnicas:

1. El acceso a la azotea debe ser restringido al personal de mantenimiento de las distintas instalaciones allí ubicadas. No se podrá utilizar la azotea para la evacuación del edificio en casos de emergencia.

2. La instalación de la maquinaría solamente podrá ser manipulada por personal autorizado. La instalación dispondrá de un cercado metálico de altura mínima de 2 metros, con una puerta de acceso (IT.IC. 07 2.b) que abrirá hacia el exterior (07.2.c).

3. Deberá existir espacio suficiente, entre la maqui-

mendu, konponketa eta abarretarako eragiketak burutzeko hainbateko espazioa jarri beharko da (07.1.b).

4. 07.1.d) delakoan finkatzen diren baldintzen arabera bertaratzeko moduan egon behar dute hots-makinak.

5. Lekuaren zoruak, suak ez hartzeko modukoa izan beharko du, sua geldiarazten duena eta suhartze-puntuak 800.º C.-tik gorakoa izan beharko du (07.5.c.). Zaratei behar hainbat eusteko modukoa izan behar du (07.2.e.).

6. Lekuaren inguruan, ez da egongo sugarrik, 450.º C.tik gorako beroa duten superfizierik (07.1.f) edo sua berehala har dezakeen materialik.

7. Behar den bezalako arrisku eta segurtasun oharren kartelak izan behar ditu lekuak (baimenik gabeko pertsonak sar ez daitezenekoa). (07.2.1.).

8. Energia mozteko eta suteetatik babesteko segurtasun balibideez (07.2.a. aipatzen direnak) hornituta egon behar du lekuak.

9. Elektra kuadroei dagokienetan, 07.5.f)-an finkatzen dena bete beharko da.

10. Hartzen den aire-kopuruak, instalazioaren gertuan kokatuta dauden beste instalazio batzuen gain (eraikinerako haizea hartzea edo kanporatzea, tximiniak, ...) eraginik ez izateko moduan jarri behar dira makinak.

11. Kargatzeko hotzgairik ez da gordeko, ez eraikinaren barruan eta ez kanpoaldean ere.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean erabaki hau eta izenpetu dadin egunetik hasita ekarriko ditu ondorio juridikoak.

Erabaki honen aurka, errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango zaio Industri Antolamendu eta Administraziorako sailburuordeari, honen berri jaso eta hilabeteko epearen barruan eta, hori, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107. atalean eta hurrengoetan xedatzen denaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko martxoaren 4a.

Industri, Energi eta Meategien
Administraziorako zuzendaria,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

naria y la cerca metálica, para realizar las operaciones de mantenimiento, reparaciones,... (07.1.b).

4. La maquinaría frigorífica será accesible en las condiciones indicadas en 07.1.d.

5. El suelo del recinto debería ser resistente al fuego e impedirá su propagación y tendrá un punto de ignición superior a 800.º C. (07.5.c). Dispondrá además de separación acústica suficiente (07.2. e.).

6. En los alrededores del recinto no se permitirán llamas, superficies caldeadas a más de 450.ºC (07.1.f), o material fácilmente combustible.

7. El recinto deberá disponer de carteles de aviso de peligro (prohibición de paso a personal no autorizado) y de seguridad adecuados (07.2.1)

8. El recinto dispondrá de los dispositivos de seguridad de corte de energía y de protección contra incendios indicados en 07.2.a.

9. El cuadro eléctrico cumplirá lo indicado en 07.5.f)

10. La maquinaría deberá disponerse de forma que el caudal del aire utilizado no afecte a otras instalaciones situadas en sus proximidades (tomas o salidas de ventilaciones del edificio, chimeneas,...)

11. No existirá almacenamiento de refrigerante para recargas, ni en el interior ni en el exterior del edificio.

Tercero.– La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, produciendo efectos jurídicos desde la fecha de su firma.

Contra la presente Resolución se podrá interponer Recurso Ordinario ante la Viceconsejería de Ordenación y Administración Industrial, en el plazo de un mes contado desde su notificación, a tenor de lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 1996.

La Directora de Administración de Industria,
Energía y Minas,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.